

Al-Makhdu'un (1972), Tawfik Saleh

**TALKA
EGIN
TALKING!!**



TALKA EGIN TALKING!!

programak filmak lagunartean ikusi eta haien itzulpena egitera gonbidatzen du, proiektagailuaren argi-azalera gainditzeko duten formen bidez (hitzaldiak, instalazioak, kontzertuak, performance-ak edota kalejira).

Hirurogeiko hamarkadan sortu zenean, *zinema hedatuak* zinematik zituen mugak gainditu nahi zituen, pantailatik harantz joz, eta esperientzia berri bat sorraraziz espazioan. Berrogei urte geroago, zinemaren metafora bezala balio du: esperientziak sortzen eta, era berean errealtatea islatu, hausnartu, ekoiztu eta aldatzen dituen forma horren metafora. Programa hau, jarduera hauetan oinarritzen da, filma ezberdinak abiaburutzat hartuta.

Aukeratu ditugun filmak Gerra Hotzaren garaian egin zituzten. Hautu hori ez dugu halabarrez egin. Ez dugu nostalgiak jarri nahi Berlingo Harresia erori aurreko hamarkadetara begira, edota ideia modernoak eta ezkerreko utopien heriotza-agiria idatzi zen aurreko uneetara begira. Proiektuaren asmoa ikusmugak galdu dituen oraina ulertu ahal izateko eta, etorkizunean haustura-uneei bide egiteko, iraganari begiratzea gomendatzen duenarekin bat dator. Hemen historiaren idazkera kultura itzulpen-ariketa bat litzateke, eta, era berean, itzultzea erresistentzia modu bat. Diskurtsoari unibertsaltasuna lortzeko aukera eskaintzen dion asmo bat, “unibertsaltasun” kontzeptua zalantzan jartzen ari den une honetan.

TALKA EGIN /TALKING! Oier Etxeberriak eta Miren Jaiok koordinatzen duten proiektu bat da, eta ZINEBI 50 programaren barruan dago.

TALKA EGIN TALKING!!

invita a ver películas en compañía y a traducirlas en formas (conferencias, instalaciones, conciertos, performances, pasacalles) que desbordan la superficie iluminada por la luz del proyector.

Cuando nació en los 60, el cine expandido pretendía trascender los límites del cine más allá de la pantalla y generar una nueva experiencia espacial. Cuarenta años más tarde, sirve como metáfora del propio cine, esa forma generadora de experiencias que sigue reflejando, pensando, produciendo y afectando la realidad. Este programa propone realizar ejercicios de cine expandido a partir de películas.

Las películas seleccionadas están realizadas durante la Guerra Fría. La elección no es casual. No se pretende dirigir una mirada nostálgica a las décadas anteriores a la caída del Muro de Berlín, a los momentos previos a la redacción del acta de defunción del ideario moderno y las utopías de izquierda. El ánimo del proyecto coincide con aquél que aconseja mirar al pasado para entender un presente caracterizado por la pérdida de horizontes y para propiciar momentos de ruptura futuros. Un ánimo que define la escritura de la historia como una serie de ejercicios de traducción cultural y la traducción como forma de resistencia que ofrece al discurso una posibilidad de universalidad en un momento en que la noción de “universalidad” se pone en cuestión.

TALKA EGIN /TALKING! es un proyecto coordinado por Oier Etxeberria y Miren Jaio incluido dentro del programa de ZINEBI 50.

EGUTEGIA / CALENDARIO

SAN FRANTZISKOKO AUZO ETXEAN / CENTRO CÍVICO DE SAN FRANCISCO

LARUNBATA, URRIAREN 18a / 18 DE OCTUBRE, SÁBADO

17:00 *La última cena* 108'

19:00 Talka egin/Talking! programaren askari-aurkezpena /
Merienda-presentación de Talka egin/Talking!

Hiroshima mi amor 90', Carla Zaccagnini

I just wanna be... perfect? Alaitz Arenzana & María Ibarretxe

20:30: *Inextinguishable Fire* 25'

IGANDEA, URRIAREN 19a / 19 DE OCTUBRE, DOMINGO

18:00 *Hiroshima mi amor* 90', Carla Zaccagnini

19:30 *Meditation On Violence* 15'
Todos nos llamamos Alí 94'

ASTELEHENA, URRIAREN 20a / 20 DE OCTUBRE, LUNES

17:30 *La última cena* 108'

19:30 *Gastronomia koloniala: jabearen eta esklaboaren parabola*. Santiago
Alba Rico-ren hitzaldia / *Gastronomía colonial: la parábola del amo
y el esclavo*. Conferencia de Santiago Alba Rico

ASTEARTEA, URRIAREN 21a / 21 DE OCTUBRE, MARTES

17:30 *Todos nos llamamos Alí* 94'

19:30 *Beldurrak arima irensten du / Denok deitzen gara Ali: Fassbinder*

itzultzea, Bestea itzultzea. Christiane Stallaert–en hitzaldia / El miedo devora el alma / Todos nos llamamos Alí: traducir a Fassbinder, traducir al Otro. Conferencia de Christiane Stallaert

ASTEAZKENA, URRIAREN 22a / 22 DE OCTUBRE, MIÉRCOLES

19:30 *Zine animau saioa / Sesión de zine animau*

OSTEGUNA, URRIAREN 23a / 23 DE OCTUBRE, JUEVES

19:30 *Mothlight 4'*
Las dos hermanas alemanas 106'

OSTIRALA, URRIAREN 24a / 24 DE OCTUBRE, VIERNES

19:30 *Inextinguible Fire 25'*
Hombres al sol 107'

LARUNBATA, URRIAREN 25a / 25 DE OCTUBRE, SÁBADO

12:00 *Kalejira Zazpi Kaleetatik. Plaza Barritik aterako da / Pasacalles por el Casco Viejo. Salida de la plaza Nueva*

Zine–maratoi herrikoia San Frantziskoko auzo–etxean / Maratón de cine en el Centro Cívico de San Francisco:

17:00 *Hiroshima mi amor 90', Carla Zaccagnini*

18:30 *Historiapean abestuz. Felix Linares–en hitzaldia / Cantando bajo la*

Historia. Conferencia de Felix Linares

19:30 *Kontzertu zinematografikoa* Gora Japon eta Rober! / Concierto cinematográfico Gora Japon y Rober!

20:00 *Egundoko pagotxa* 84' Juan Mari Mendizabal

ASTELEHENA, URRIAREN 27a / 27 DE OCTUBRE, LUNES

17:00 *Hombres al sol* 107'

19:00 *Critical Nationals.* Rasha Salti-ren hitzaldia / *Critical Nationals.* Conferencia de Rasha Salti.

Jatorrizko literatura-lanaren eta filmeko itzulpenaren arteko konparazioko azterketa, Tawfik Saleh-i egindako dokumental-elkarrizketa bat abiaburutzat hartuta. Fareed Armaly-ren hitzaldia / Análisis de original literario y traducción fílmica a partir de un documental-entre vista con Tawfik Saleh. Conferencia de Fareed Armaly

ASTEARTEA, URRIAREN 28a / 28 DE OCTUBRE, MARTES

17:30 *Las dos hermanas alemanas* 106'

19:30 *Armada Gorriaren Frakzioa eta kultura postmilitantea Alemanian eta harantzago.* Charity Scribner-en hitzaldia / *La Facción del Ejército Rojo y la cultura postmilitante en Alemania y más allá.* Conferencia de Charity Scribner.

Ekintzetara etortzen diren ikasleek orduak batu ahal izango dituzte EHUKo Arte Ederren Fakultateko hautapen askeko kreditu bat lortzeko / La asistencia a los eventos se convalidará con créditos de libre elección en la facultad de Bellas Artes de la EHU/UPV.

TALKA EGIN/TALKING ! ARTELEKU

DOKUMENTAZIO GUNEA Urriaren 29a–azaroaren 10a. Artelekuko areto balioanitzean, kontsultarako gunea prestatuko da. Bertan, proiektuaren lehenengo aldian sortutako ikus-entzunezkoen material guztia bilduko da / ESPACIO DE DOCUMENTACIÓN 29 octubre–10 de noviembre. Espacio de consulta en la sala de exposiciones de Arteleku en el que se recogerá en vídeo y audio el material generado durante la primera parte del proyecto.

ASTEAZKENA, URRIAREN 29a / 29 DE OCTUBRE, MIÉRCOLES

19:30 *Zine animau saioa / Sesión de zine animau*

OSTEGUNA, URRIAREN 30a / 30 DE OCTUBRE, JUEVES

19:00 Talka egin/Talking! proiektuaren aurkezpena, Oier Etxeberriaren eta Miren Jaioren eskutik/ Dokumentazio-gunearen inaugurazioa / Presentación de Oier Etxeberria y Miren Jaio de Talka egin/Talking!. Inauguración del espacio de documentación.
Hombres al sol 107'

OSTIRALA, URRIAREN 31a / 31 DE OCTUBRE, OSTIRALA

19:30 *I just wanna be... perfect? bideoaren aurkezpena, Alaitz Arenzanaren eta María Ibarretxeren eskutik bideoaren aurkezpena egingo dute / Presentación de Alaitz Arenzana y María Ibarretxe del vídeo I just wanna be... perfect?*

Meditation On Violence (1948), Maya Deren



TALKA EGIN PICTURES!

I just wanna be... perfect?

Karen-ek zera esaten du Superstar: *The Karen Carpenter Story* filmeko une batean: “I just wanna be perfect”. Zergatik? Bakarka egindako bidaia, desertua. Alaitz Arenzanak eta María Ibarretzek bideora itzultzen dute Superstar. *The Karen Carpenter Story* filma. Hasieran, film hori ezin zen ikuskatu, baina orain ezinbestez eskura daiteke Internet-en bidez.

Instalazioa zabalik egongo da Talka egin/Talking! programa egiten den bitartean

Hiroshima mi amor

Carla Zaccagninik *Hiroshima Mon Amour* filma itzultzen du. Artistak instalazio bat aurkezten du “ispiluen aretoan”; eta, bertan, “itzultzea” eta “errepikatzea” kontzeptuak gurutzatzen dira, audio- eta testu-iturri desberdinak abiaburutzat hartuta: frantsesez dagoen jatorrizko soinu-banda, gaztelaniaz dagoen audio-deskribapena, itsuek uler dezaten irudia deskribatzen duen metodoa, eta Marguerite Duras-ek filmerako prestatu zuen gidoiaren testua.

Proiektuaren aurkezpena Arte Ederretako Museoaren Zinematekan egingo den Alain Resnais-en pelikularen proiektzioarekin koinziditzen du. Pelikula urriaren 17an eta 18an proiektatuko da.

Zine animau

Alex Mendizabalek eta Juan José Arangurenak honako lelo hau hartzen dute aintzat: “filma ez du zuzendariak bukatzen, proiektionistak bukatzen du”. “Pantaila irabiatuko” programa honek espazioa eraldatzen du, margotutako, marratutako, mimatutako, ahaztutako, aurkitutako eta familiako filmen proiektzioak eta multi-proiektzioak eginez.

Kalejira Zazpi Kaleetatik

Kalejira eta Hollywood-eko zinemako soinu-banda herri-molde artistikoak dira. Eneko Espino Mujikak, Aitor Furundarenak eta Garikoitz Mendizabal-ek bi molde horien arteko mugak zeharkatuko dituzte kalejira bat eginez, zinema klasikoko soinu-banda ezagunen txistuko eta akordeoiko moldaketekin.

Historiapean abestuz

Félix Linaresek musikaz lagundutako hitzaldia edo iruzkinez osatutako entzunaldia eskainiko du, bakoitzak nahiago duen modura. Zinemari buruz arituko da, soinu-bandak oinarritzat hartuta. Ekitaldi hau *Stock 13* proiektuaren barruan dago. Proiektu hori lankidetzan egin da Artelekuko Audiolab-ekin, eta dena lotzen duen haria kantak dira.

Kontzertu zinematografikoa

Gora Japon & Rober! zinemako doinuen bidezko kontzertu laburra emango dute. Joko dituzten bertsioek jatorrizko kantak ahaztea eragingo dizkigu.

Egundoko pagotxa

Juan Mari Mendizabalek zuzenean itzuliko du danieratik euskarara Gabriel Axel-en *Guld Og Grønne Skove* lana. Atzerriratzeko ariketa bat egitea proposatzen du, bi “hizkuntza txiki-
ren” audioa gainezarriz, bikoizteko teknika hori oso ohikoa baita herrialde batzuetan.

Guld og Grønne Skove (1958),
Gabriel Axel



TALKA EGIN TALKING!!

TALKA EGIN PICTURES!

I just wanna be... perfect?

Karen dice en un momento de la película: “I just wanna be perfect”. ¿Por qué? Un viaje en solitario, el desierto.

Alaitz Arenzana y María Ibarretxe traducen en vídeo *Superstar. The Karen Carpenter Story*, una película, en principio, invisionable a la que inevitablemente puede accederse a través de Internet.

La instalación estará abierta a lo largo del programa Talka egin/Talking!

Hiroshima mi amor

Carla Zaccagnini traduce *Hiroshima Mon Amour*. La artista presenta una instalación en la “sala de espejos” en la que se cruzan las nociones de traducción y repetición a partir de distintas fuentes de audio y texto: la banda sonora original en francés, la audio–descripción en castellano, método que describe la imagen a los invidentes y el texto del guión que Marguerite Duras realizó para la película.

La presentación del proyecto coincide con la proyección el 17 y el 18 de octubre de la película de Alain Resnais en la Cinemateca del Museo de BB.AA.

Zine animau

Alex Mendizabal y Juan José Aranguren siguen el lema de que “una película no la acaba el director sino el proyccionista”. Este programa de “pantalla agitada” transforma el espacio con proyecciones y multi–proyecciones de películas pintadas, rayadas, mimadas, familiares, olvidadas y encontradas.

Pasacalles por el Casco Viejo

El pasacalles y la banda sonora del cine de Hollywood pertenecen a las formas artísticas populares. Eneko Espino Mugika, Aitor Furundarena y Garikoitz

Mendizabal cruzarán estas dos formas en un pasacalles con los arreglos para txistu y acordeón de populares bandas sonoras del cine clásico.

Cantando bajo la Historia

Félix Linares ofrecerá, según el gusto de cada cual, una conferencia musicalizada o una audición comentada, sobre el cine a través de sus bandas sonoras. Este evento forma parte de *Stock 13*, un proyecto en colaboración con el Audiolab de Arteleku que tiene como hilo conductor las canciones.

Concierto cinematográfico

Gora Japon y Rober! Atom Rhumba ofrecerán un concierto condensado a partir de melodías cinematográficas. Tocarán versiones que nos harán olvidar el original.

Egundoko pagotxa

Juan Mari Mendizabal interpretará en directo del danés al euskera *Guld Og Gronne Skove* de Gabriel Axel. Se propone un ejercicio de extrañamiento a través del solapamiento del audio de dos “idiomas pequeños”, una técnica habitual de doblaje en algunos países.



La última cena (1976), Tomás Gutiérrez Alea

SINOPSIAK

***La última cena* (1976), Tomás Gutiérrez Alea 108'**

Ironiaz betetako alegoria hau benetan jazotako gertakarietan dago oinarrituta, eta XVIII. mendeko gizarte kolonialaren hipokresia azaltzen du. Gidoia Manuel Moreno Fraginals-en *El ingenio* izeneko ekonomiako saiakeraren paragrafo bat irakurri ondoren sortu zen. Saiakera horretan, Casa Bayonako kondearen historia azaltzen da, konde horrek bere hamabi esklaboak bildu baitzituen Ostegun Santu batez, oinak garbitu baitzizkien eta bere mahaian afaltzera gonbidatu baitzituen, era horretan bere kontzientzia garbi edukitzeko.

***Inextinguible Fire* (1969), Harun Farocki 25'**

“Napalm-a sutan hasten denean, beranduegi da itzali ahal izateko. Napalm-ari aurre egin behar zaio sortzen den tokian bertan: fabriketan”. Agit-prop joerako film honek ez du zirrararik sorrarazi nahi. “(1) Korporazio bat eraikuntzako jolas bat bezalakoa da. Harekin mundu oso bat egin daiteke. (2) Lanaren banaketak gora egin duen heinean, jende asko ez da gai ohartzeko suntsipen handia sorrarazteko ekoizpenean betetzen duen zereginaz. (3) Azken emaitza langileen, ikasleen eta ingeniarien lanaren ondorioa da”. (Video Data Bank)

***Hiroshima mon amour* (1959), Alain Resnais 91'**

Emakume frantses batek eta gizon japoniar batek affaire labur bat dute Hiroshiman. Maitaleen elkartzeak erakusten dituzten eszenen artean, irudi dokumentalak eta flashback-ak tartekatzen dira, eta, horietan, emakumeak II. Mundu Gerran soldadu alemaniar batekin izan zuen maitasun-istorioa kontatzen du. Marguerite Duras-ek idatzitako gidoi honetan, iragana eta oraina, norbanakoaren pairamena eta taldearen sufrimendua korapilatzen dira, gerrari eta memoriari buruzko narrazio zatikatu bat osatuz.

Superstar. Karen Carpenter's story (1987), Todd Haynes 43'

Merkataritza-banaketatik kendu zuten film honetan, kantariaren bititza azaltzen da, nerbio-anorexiaren ondorioz hil zen arte. Jende ospetsuari egindako elkarrizketak, bizitegi-auzoetako fatxadak, eta Nixon-en eta Vietnango irudiak tartekatzen dira, Iparramerikako feminitatearen eta xalotasunaren ikur bilakatu zen emakumearen bizitzako eszenekin batera. Barbie panpinak dira antzezle bakarrak, eta horrek areago nabarmentzen du pop ikurraren izaera eraikiaren eta oinarrian dagoen gizarte- eta historia-giroaren arteko aldea.

Meditation On Violence (1948), Maya Deren 12'

Chao Li Chi-k arte martzialeko hiru estilo betetzen ditu mugimendu bakar eta etengabe batean: sekuentzia batean Wu-tang urratsak ematen ditu, Txinako flautaz lagunduta; horren ondoko eszenan, Haitiko danborren erritmo biziak Shao-lin-eko urratsak markatzen ditu; eta eszena horren ondotik, aktorea agertzen da, Shao-lin-eko urratsak eginez ezpatarekin. Hemen, narrazioaren ildoak geldiarazten da eta atzeraka egiten hasten da. Konposizio eder honek saiakuntzak egiten ditu filmeko denborarekin, eta hasiera ematen dio gero Brakhage-k eta Snow-ek jarraituko duten korrante fenomenologikoari.

Angst essen Seele auf (1973), Rainer W. Fassbinder 94'

Ali immigrante marokoar bat da; Emmi, berriz, garbitze-lanetan aritzen den alargun heldu bat. Film honetan, haien arteko maitasun-istorio ezinezkoa azaltzen da. Melodrama honek Sirk-en estilo zaindua eta Brecht-en hoztasuna bateratzen ditu. Melodramak emozioak identifikatzeko dituen tresnak desaktibatzean, egiturazko kontuak -adina, jatorri etnikoa, maila ekonomikoa, gizarte-estatusa- dira erabakigarrienak pertsonaien bizitzetan. Gizartearen erpresioaren kritika lehorra baina lirikoa da.

Mothlight (1963), Stan Brakhage 4'

"Kamerarik gabe egindako lehenengo filmean, Brakhage-k sits baten hegoak, eta landareen eta intsektuen zatiak jarri zituen 16 mm-ko zeluloidearen

zabalerako zinta zulatuen gainean. Film-collage honetan, proiektionista-
ren aretoak naturaren jarraipena zatikatzeko duen modua azaltzen da. Natu-
rari buruzko ohiko dokumentaletan objektuek egonkortasun estatikoa izaten
dute; baina *Mothlight* sakon grabatuta geratzen da ikuslearen begietan.”
(Fred Camper)

***Die bleierne Zeit* (1981)**, Margarethe von Trotta 106’

“1968. urtean bi ahizpa borrokan ari dira gizartea aldatzeko: Juliane kazeta-
ri konprometitu da; bere ahizpa, berriz, erakunde terrorista baten barruan
sartzen da. Deutschland im Herbst (Alemania udazkenean) filmean bezala,
iragana orainaldiarekin nahasten da, eta aditzera ematen da gerra ondoko
Alemaniako giro zanpatzaileak eragin zuela ikasleen aktibismoa. Alabaina,
filmean azaltzen den Alemanian terrorismoa ez da garrantzitsua, eta ez da
baterako ahaleginik egiten egoera aldatzeko”. (Ben Andac)

***Al-Makhdu’un* (1972)**, Tawfik Saleh 107’

Immigrazioari eta estatuen arteko mugei buruzko kontakizun hau Ghassan
Kanafani-ren izen bereko eleberrian oinarrituta dago. Palestinako hiru erre-
fuxiatuk heriotzarantz bidaiatzen dute, zisterna-kamioi baten barruan itxita,
desertuaren erdian, Irak eta Kuwait-en arteko mugan. Tawfik Saleh zuzendari
egiptoarrak zuzendu zuen filma, Siriara erbesteratu zen garaian. Batzuen
ustez, “intimismo pan-arabista” ikuspegia azaltzen du filmean. Film honi
gaztelaniazko azpitituluak jarri dizkiogu Talka egin/Talking! proiekturako.

***Guld og Grønne Skove* (1958)**, Gabriel Axel 84’

Danimarkako uharte txiki bateko hiru gaztek aldameneko uharteko hiru
ahizpa gorteiatzen dituzte. Ahizpen aita horren kontra dago. Halako batean
amerikar batzuk iristen dira uhartera, petrolio dagoela uste dutelako; eta
harrez geroztik dena aldatuko da. Ohitura-komedia honek zertzelada erro-
mantikoak ditu. Amerikartzeko prozesuari buruzko satira bat da, eta, bertan,
kultura kolonizatzailearen txikleek, oparotasunak eta jazzak kontraste nabar-
mena sorrazten dute, uharteko biztanleen izaera patxadatsuekin erkatuta.

SINOPSIS

La última cena (1976), Tomás Gutiérrez Alea 108'

Irónica alegoría basada en hechos reales sobre la hipocresía de la sociedad colonial del siglo XVIII. El guión surgió de la lectura de un párrafo del ensayo económico *El ingenio* de Manuel Moreno Fraginals, donde se relata la historia del conde de Casa Bayona, que reunió un Jueves Santo a doce de sus esclavos, les lavó los pies y les invitó a cenar a su mesa para tranquilizar así su conciencia.

Inextinguishable Fire (1969), Harun Farocki 25'

“Cuando el napalm arde, ya es demasiado tarde para apagarlo. Hay que combatir el napalm allí donde se produce: en las fábricas”. Esta película de agit-prop no apela a la emoción. “(1) Una corporación es como un juego de construcción. Con él puede fabricarse todo un mundo. (2) Con el incremento de la división del trabajo, muchos ya no son capaces de reconocer el papel que juegan en la producción para la destrucción masiva. (3) El resultado final es el producto de trabajadores, estudiantes e ingenieros”. (Video Data Bank)

Hiroshima mon amour (1959), Alain Resnais 91'

Una mujer francesa y un hombre japonés viven un breve affaire en Hiroshima. Las escenas de los encuentros de los amantes se intercalan con imágenes documentales y flashbacks en los que la mujer narra su historia de amor con un soldado alemán durante la II Guerra Mundial. Con guión de Marguerite Duras, pasado y presente, padecimiento personal y sufrimiento colectivo se entrelazan en una narración fragmentada sobre la guerra y la memoria.

Superstar. Karen Carpenter's story (1987), Todd Haynes 43'

Retirada de la distribución comercial, narra la vida de la cantante hasta su muerte víctima de anorexia nerviosa. Intercala entrevistas a famosos,

fachadas de barrios residenciales e imágenes de Nixon y Vietnam con las escenas de la vida de una mujer convertida en icono de la inocencia y la feminidad norteamericanas. El uso de muñecas Barbie como únicas intérpretes acentúa el contraste entre el carácter construido del icono pop y su trasfondo socio-histórico.

Meditation On Violence (1948), Maya Deren 12'

Chao Li Chi ejecuta en un movimiento continuo tres estilos de arte marcial: a una secuencia de Wu-tang acompañada de flauta china le sucede otra donde el ritmo frenético de los tambores haitianos marca los pasos de Shao-lin y, a ésta, otra escena donde el actor ejecuta pasos de Shao-lin con espada. Aquí, la línea narrativa se congela y da marcha atrás. Esta bella composición que experimenta con el tiempo fílmico inaugura la corriente fenomenológica que continuarán Brakhage y Snow.

Todos nos llamamos (Alí Angst essen Seele auf 1973), Rainer W. Fassbinder 94'

La improbable historia de amor entre Alí, un inmigrante marroquí, y Emmi, una viuda mayor que trabaja como mujer de la limpieza, da pie a este melodrama que combina el estilo depurado de Sirk con el distanciamiento de Brecht. Al desactivar los mecanismos de identificación emocional del melodrama, las cuestiones estructurales –la edad, el origen étnico, la clase económica, el status social– se desvelan como las determinantes en las vidas de los personajes de esta seca pero lírica crítica de la represión social.

Mothlight (1963), Stan Brakhage 4'

“Su primera película hecha sin cámara, Brakhage colocó las alas de una polilla, trozos de insectos y plantas sobre cintas perforadas de la anchura del celuloide de 16mm. Este collage fílmico trata sobre la forma en que la sala del proyccionista fragmenta la continuidad de la naturaleza. Al negar a los

objetos la estabilidad estática de un documental de naturaleza al uso, *Mothlight* queda grabada de manera profunda en los ojos del espectador.” (Fred Camper)

Las dos hermanas alemanas (Die bleierne Zeit 1981), Margarethe von Trotta 106’

“En 1968, dos hermanas luchan por cambiar la sociedad: Juliane es una periodista comprometida, su hermana se integra en una organización terrorista. *Como en Alemania en otoño*, el pasado se mezcla con el presente, dando a entender que la atmósfera opresiva de la Alemania de posguerra fue responsable del activismo estudiantil. Sin embargo, la película retrata una Alemania donde el terrorismo ya no es importante y no existe un esfuerzo común por cambiar las cosas.” (Ben Andac)

Hombres al sol (Al-Makhdūn 1972), Tawfik Saleh 107’

Relato sobre la inmigración y las fronteras nacionales basado en la novela homónima de Ghassan Kanafani. Tres refugiados palestinos viajan hacia la muerte encerrados dentro del tanque de un camión-cisterna en medio del desierto en la frontera entre Irak y Kuwait. El cineasta egipcio Tawfik Saleh la dirigió durante su periodo de auto-exilio en Siria desde una perspectiva que algunos definen como “intimismo pan-arabista”. Esta película ha sido subtitulada en castellano para Talka egin/Talking!.

Guld og Grønne Skove (1958), Gabriel Axel 84’

Tres jóvenes de una pequeña isla danesa cortejan a tres hermanas de la isla vecina. El padre de éstas se opone. Todo cambia con la llegada de unos americanos que sospechan que en la primera isla hay petróleo. Esta comedia costumbrista con pinceladas románticas realiza una sátira sobre la americanización en la que los chicles, la exhuberancia y el jazz de la cultura colonizadora contrastan con el carácter flemático de los isleños.

GONBIDATUAK

Santiago Alba Rico

Filosofoa da eta saiakerak argitaratu ditu (*Leer con niños, La ciudad intangible, El mundo incompleto*). Ondo ezagutzen du mundu arabiarra, eta hainbat poetaren itzulpenak egin ditu, esate baterako, Naguib Surur egiptoarraren edo Mohammad Jidayr irakiarraren itzulpenak. *Los electroduendes* programako gidoilaria izan zen.

Juan José Aranguren eta Alex Mendizabal

Zine Animau taldea osatzen dute 1999. urtetik. Arangurenek eskultura publikoko eta Haur Hezkuntza Estetikoko programa esperimentalak egin ditu. Mendizabal hainbat taldetan aritu da lanean, adibidez, *Live TV, Cucinema di Genzano* eta *Monnezza sonora* taldeetan, eta, horrez gain, *Urazpiko kontzertuak, zinema itsua* eta *Servicio Ahorro Tiempo* bezalako proiektuetan parte hartu du.

Alaitz Arenzana eta María Ibarretxe

Zinemagile eta aktore/dantzari hauek “Sra. Polaroiska en Sillón de Taller” taldeko kideak dira. Guneak bilatzen dituzte enkoadratzearen barruan, jolasaren, performance-aren eta fikzioaren artean. Zinema-bideoko eta bideodantzako proiektuetan (*Lady Jibia* eta *Pero, tú... ¿Eres tú? No, yo soy su*), gizarteko zantzuak aztertzen dituzte.

Fareed Armaly

Artista eta komisarioa izateaz gain, irakaslea da, eta nortasun-politikak eta gaur egungo gaien irudikapenak dira bere aztergai nagusiak. Bere lanen artean, honako hauek nabarmendu behar ditugu: *haus.0*, Stuttgart-eko

Künstlerhaus-eko zuzendari artistikoa zela egindakoa (1999–2003), eta *From/ To*, Witte de With-en (1999) eta Documenta 11 erakusketan (2002).
www.fareedarmaly.net

Eneko Espino Mujika, Aitor Furundarena, Garikoitz Mendizabal

Espino txistularia eta baxua da, Gasteizko txistularien bandako kidea da, eta musikako irakaslea da. Furundarenak akordeoia jotzen du, musika konposatzen du zinema, antzerki eta telebistarako, eta Musikeneko irakaslea da. Mendizabal Txistularien Elkarteko burua da, Bilboko txistularien banda zuzentzen du, eta folk-taldeetan eta soinu-bandetan parte hartzen du.

Gora Japon eta Rober!

Bikote basiko hau 2005. urtean sortu zen, eta Miriamek (ahotsa, perkusioa eta bateria) eta Jonek (gitarra, ahotsa, tronpeta) osatzen dute. Talde honen konposizioak rock, funk, new wave eta jazzaren artean daude, eta erritmoak egituratzen ditu. Pop kanta da abiaburua, eta, inprobisazioa bezalako baliabideak erabiliz, formatua haustera eta desegituratzera jolasten du. Rober!, Atom Rhumba taldeko frontman eta musikagilea da. Atom Rhumba 1995ean Bilbon sortutako rock'n'roll taldea dugu.

www.myspace.com/gorajapon
www.atomrhumba.com

Félix Linares

Zinema- eta literatura-kritikari hau euskal telebistako eta irratiko “ahots” zinematografikoa da. *La noche de...* zinemari buruzko programa aurkezten du ETB2n. Hogei urte baino gehiago daramatza literaturari buruzko *Pompas de papel* izeneko irradi-programa zuzentzen, Enrique Martínekin batera. Bestalde, *Graffiti* programako lankidea da.

Juan Mari Mendizabal

Idazlea eta interpretea da. Danieratik euskarara eta gaztelaniara itzuli ditu Isak Dinesen, Sören Kierkegaard, Henning Mankell, Klaus Rifbjerg eta Peter Hoeg-en lanak; era berean, ingelesetik euskarara itzuli ditu Saul Bellow, James Baldwin eta Raymond Carver-en lanak. Horrez gain, Antoni Muntadas-en *On translation* proiektuan parte hartu zuen, eta lankidetzan aritu da Arteleku eta *Zehar* aldizkariarekin.

Rasha Salti

Komisarioa eta idazlea da, eta Beirut eta New York hirien artean bizi da. 1997. urtean *For a Critical Culture* zuzendu zuen, Edward Said-i egindako omenaldia; eta 1998. urtean, berriz, *50, Nakba and Resistance* zuzendu zuen, Palestinako tragediaren 50. urtemugaren oroitzapenez. *Insights into Syrian Cinema* argitaratu du, eta New Yorkeko Cinema East Film Festival zinemaldia zuzentzen du.

Charity Scribner

New Yorkeko City University-ko irakaslea da, *Requiem for Communism* liburua idatzi zuen, eta *New Left Review*, *Critical Inquiry* eta *Grey Room* aldizkarietako lankidea da. Forma artistikoek forma ideologikoetan zer-nolako eragina duten eta nola islatzen diren aztertzen du, eta, bestek beste, situazionismoaren eta RAF-en (Armada Gorriaren Frakzioaren) arteko harremanak ikertu ditu.

www.charityscribner.net

Christiane Stallaert

Gizarte eta Kultura Antropologian doktorea, eta Itzulpen Espezializatuko, eta Espainiera eta Espainiako Kulturako irakaslea da Anberesko Unibertsitatean. Bere argitalpenen artean, honako hauek nabarmenduko ditugu:

Perpetuum Mobile. Entre la balcanización y la aldea global eta Ni una gota de sangre impura: la España inquisitorial y la Alemania nazi cara a cara.

Carla Zaccagnini

Artista, idazlea eta komisarioa da, eta *no. it is opposition* lana aurkeztu berria du Art Gallery of York University-n (Toronto, 2008). Bere obra, une hauetan, São Pauloko XXVIII. Bienalean dago, eta, horren bidez, “hausnarketa egiten du jakintzei, jarduteei, adimenezko eraikuntzei, instituzioei, pertzepzioei eta irudikapeni buruz”.



Al-Makhdu'un (1972), Tawfik Saleh

INVITADOS

Santiago Alba Rico

Filósofo, ha publicado ensayo (*Leer con niños, La ciudad intangible, El mundo incompleto*). Buen conocedor del mundo árabe, ha traducido a poetas como el egipcio Naguib Surur o el iraquí Mohammad Jidayr. Trabajó como guionista de *Los electroduendes*.

Juan José Aranguren y Alex Mendizabal

Forman desde 1999 *Zine Animau*. Aranguren ha desarrollado programas experimentales de Educación Estética Infantil y escultura pública. Mendizabal participa en colectivos como *Live TV, Cucinema di Genzano y Monnezza sonora* y proyectos como *Música bajo el agua, Películas ciegas y Servicio Ahorro Tiempo*.

Alaitz Arenzana y María Ibarretxe

Cineasta y actriz/bailarina, forman parte de *Sra. Polaroida en Sillón de Taller*. Buscan espacios entre el juego, la performance y la ficción dentro del encuadre. Sus proyectos de cine-vídeo y videodanza (*Lady Jibia y Pero, tú... ¿Eres tú? No, yo soy su*) hablan de síntomas sociales.

Fareed Armaly

Artista, comisario y profesor centrado en las políticas identitarias y las representaciones de lo contemporáneo. Entre sus trabajos, caben destacar *haus.0*, como director artístico de la Künstlerhaus de Stuttgart (1999–2003) y *From/To* en Witte de With (1999) y Documenta 11 (2002).
www.fareedarmaly.net

Eneko Espino Mugika, Aitor Furundarena, Garikoitz Mendizabal

Txistulari y bajo, Espino forma parte de la Banda de txistularis de Vitoria y es profesor de música. Furundarena toca el acordeón, compone para cine, teatro y televisión y es profesor de Musikene. Mendizabal preside la Asociación de Txistularis, dirige la Banda de txistularis de Bilbao y participa en grupos folk y bandas sonoras.

Gora Japon y Rober!

Gora Japon es un dúo básico surgido en 2005 e integrado por Miriam (voz, percusión y batería) y Jon (guitarra, voz, trompeta). La noción de ritmo vertebraba sus composiciones entre el rock, el funk, la new wave y el jazz. Parten de la canción pop para jugar a romper y desestructurar el formato. Rober! es el frontman y compositor de Atom Rhumba, grupo de rock'n'roll del Gran Bilbao formado en 1995.

www.myspace.com/gorajapon

www.atomrhumba.com

Félix Linares

Crítico de cine y literatura, es la “voz” cinematográfica de la televisión y la radio vascas. Presenta en ETB2 el programa de cine *La noche de...* Desde hace veinte años dirige junto Enrique Martín el programa radiofónico sobre literatura *Pompas de papel*. También colabora en *Graffiti*.

Juan Mari Mendizabal

Traductor e intérprete. Ha traducido del danés al euskera y al castellano a Isak Dinesen, Sören Kierkegaard, Henning Mankell, Klaus Rifbjerg o Peter Hoeg y del inglés al euskera a Saul Bellow, James Baldwin y Raymond Carver. Participó en el proyecto de Antoni Muntadas *On translation* y ha colaborado con Arteleku y Zehar.

Rasha Salti

Comisaria y escritora, vive entre Beirut y Nueva York. Dirigió en 1997 *For a Critical Culture*, homenaje a Edward Said, y, en 1998, 50, *Nakba and Resistance*, en conmemoración del 50 aniversario de la tragedia palestina. Ha editado *Insights into Syrian Cinema* y dirige el festival *Cinema East Film Festival* de Nueva York.

Charity Scribner

Profesora de la City University de Nueva York, es autora de *Requiem for Communism* y colabora en *New Left Review*, *Critical Inquiry* y *Grey Room*. Estudia cómo las formas artísticas reflejan e inciden sobre las formas ideológicas y, entre otros, las relaciones entre el Situacionismo y la RAF.
www.charityscribner.net

Christiane Stallaert

Doctora en Antropología Social y Cultural, profesora de Traducción especializada, Lengua y Cultura españolas en la Universidad de Amberes. Entre sus publicaciones destacan *Perpetuum Mobile. Entre la balcanización y la aldea global* y *Ni una gota de sangre impura: la España inquisitorial y la Alemania nazi cara a cara*.

Carla Zaccagnini

Artista, escritora y comisaria, acaba de presentar *no. it is opposition* en la Art Gallery of York University (Toronto, 2008). Su obra, actualmente en la XXVIII Bienal de São Paulo, “se caracteriza por proponer reflexiones sobre los saberes, las prácticas, las construcciones mentales, las instituciones, las percepciones y las representaciones”.

Angst essen Seele auf (1973), Rainer W. Fassbinder

TALKA EGIN TALKING!!

San Frantzisko auzo-etxea / Centro Cívico de San Francisco
Mariaren Bihotza plaza 4 / Plaza Corazón de María 4
48003 - Bilbo / Bilbao
Tel: 94 4157337

Arteleku

Kristobaldegi 14 Loiola Auzoa 20014- Donostia/San Sebastián
Tel: 943 453662 www.arteleku.net

